

## IUVAN XESTALOVEN GUTUNA

Eva Thót

Ondoan datorren manifestu edo dei hau Iuvan Xestalov idazle mansi edo bogultarrak egin du. Hungarieraz lau liburu argitaratuta dituen poeta eta narratzaile honek jakin erazi zidan nola bere herriko 7-8 mila lagunetatik erdiek bakarrik hitzegiten duten gurasoen hizkuntza; bakarra dagoela sokazko musika tresna tradizionala jotzen dakiena; mansi herriaren batazbesteko adina, 42-47 urtekoa dela; biztanlegoaren erdiak tuberkulosia duela; bogultarren hileko soldata batazbestekoa 26 errublokoa dela, beren herrian bertan petrolioa ateratzen lan egiten duten langile errusiarrek milana irabazten duten bitartean.

\* \* \*

*Jaun agintariak, buruzagiak!*

*Entzun, belarriak dituzuenok!*

*Ulertu, aditzen duzuenok!*

*Orain gauza bakarrak baino ez naizela arduratzen, ulertu dut hil behar dugula ez bakarrik fisikoki, baizik eta izpiritualki ere bai.*

*Orain arte, inozoa izanik, ipar herrietako gehientsuenak bezala, uste nuen herri txikiak, izpiritualki bederen, biziko zirela, arima ez bait dago herri bateko bizilagun kopuruaren menpe.*

*Nola liteke, abestu eta kontatu egiten duen herri txiki baten arima eta energia artistikoa, jende kopuruaren arabera egotea, eta gizar-tearentzat balio gutxikoa izatea?*

*Ez al daude herri txikietan balio paregabekoak, herri handiek galtzera eraman dituztenak? Esaterako, memoria historikoa: hizkuntza, folklorea, sendabideak, tradizioak... milaka urtetan landutako oroitzapenak...*

*Zenbatu al liteke gizonarengan metatutako guztia? Naturaren konputagailu handi horrengan metatutako guztia?*

*Zeren, badoazenek esatekorik asko dute. Historiaren kapritxoak, patuarenak, Iparraldera eraman ditu, mendietara eta mendietatik harantzago, zingiretatik harantzago, izotzetan harrapatutako uretatik harantzago... Eta Lurreko hozkailu natural honetan gorde dugu gure hizkuntzan, gure kulturaren, aintzinako zibilizazioen jakituria.*

*Zeinek jakin, lurralde artikoetako herri txikiek, mendi garaitezi-netakoek, ozeanoetako irla misterioetsuetakoek, aintzinako zibilizazioetako azken hondarrak diren hauek ez ote duten iraun, herri handiek gogoan izan dezaten, beraiek ere antzeko etorkizuna izango dutela, ulerkorragoak izan ezean.*

*Herri handietako seme-alabak, zeinen gorra zareten! Handike-riaren mozkor-itsuak ez dizue uzten ez entzuten ez eta ikusten, herri txikien ez erregu, ez eskari ez eta negarrik. Lastima!*

*Gaur zuengana ekarri nauena da, herri fino-ugriarren organua izango den STERJ aldizkariaren sorrera; BELI ZHURAVL [«kurrilo zuria»] egunkariaren argitaratzea eta herri txikietako idazle eta ikertzaileek idatzitako liburuen kaleratzea. Ez dadila gertatu hitz sakon eta jakite handikook jatorrizkoentzako altxor hutsean geratzea. Guzti honetatik argitaratzen den gutxia urruti egiten da, gehienetan atzerrian. Liburu mila argitara litezke balio paregabekoak. Baina esaten dute ez dagoela paperik. Inprimategiak ez dira gureak. Loraldi izpiritual baten itxaropena ernarazi zuten komunistek onartu egin dute beren ezintasuna. Gainontzekoek, dirudienez, pozik diraute beren*

*business-etan. Txikien arazoak eta eskaerak huskeriak irudituko zaizkie, nahiz eta arimaren salbazioa ahulenari laguntzean dagoen.*

*Posible ote da Lur eder honetan inor ez egotea inspirazio guran? Homo Sapiensaren gizatasuna arimaren hondoraino iritsi ote da, Naturaren azkeneraino?*

*Azkenekoz eskatuko dizuet:*

*Entzun iezadazue, lagun iezaguzue!*

*Budapest, 1991ko ekainaren 17an.*

(Beatriz Zabalondok itzulia)